

## UDALAREN KONTRATAZIOETAN GIZARTE KLAUSULAK EZARTZEAREN ALDEKO MOZIOA

Gure Udala, Lasarte-Orian, enplegatzaile nagusienetakoa da eta sektore publikotik gizarterentzat politika eredugarriak egin behar dituela sinesten dugu.

Mozio honen bidez, Lasarte-Oriako Udalak egiten dituen kontratazio publikoetarako pleguetan Gizarte-Gai, Genero eta Ingurugiro klausulak ezarri daitezela eskatu nahi dugu; horretarako, azaroaren 8ko 2017/9 Sektore Publikoaren Kontratazio Legeak ematen dituen aukerak baliatuz.

Batetik, aipaturiko legea oinarri hartuta, honako hau eskatzen dugu:

- Gizarte ekonomiako eta irabazi asmorik gabeko enpresentzat Kultura, Osasun edota Gizarte Zerbitzuetako kontratuen erreserba baliatzea.

Bestetik, Udal lizitazioetan, lan munduari dagozkion gizarte-gai, genero eta ingurugiro klausulak ezartzea eskatzen dugu, besteak beste:

- Langabeziaren aurka egiteko neurriak balioesten dituzten klausulak ezartzea, bereziki: gazteen langabezia, emakumezkoen langabezia edota epe luzeko langabeei eragiten diena.
- Laneko segurtasunaren eta osasunaren babesa ziurtatzen duten neurri zehatzak ezartzea kontratazioetan.
- Lan-hitzarmenen betetzea ziurtatzeko klausulak ezartzea.
- Bereziki lan munduan ematen diren genero-desberdintasunei erantzuten dioten hainbat genero-klausula ezartzea, hala nola:
  - ✓ Berdintasunerako planak edo neurriak lehenestea kontratazioetan.
  - ✓ Gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna bultzatzea, jazarpen sexualaren kontrako neurriak hartzea eta LGTBI pertsonen diskriminazioaren aurkako neurriak exijitzea Udalaren kontratazioetan.
  - ✓ Komunikazio-inklusiboa baloratzea, edota zaintza arduratsuaren aldeko klausulak ezartzea..

Lasarte-Oria, 2020ko martxoaren 5ean.  
Lasarte-Oria EH Bildu.